

Martutene

Ikastola euskaltegi

Arantzazuko Ama ikastolan, haurrek ez ezik, gurasoek ere ikasten dute. Martxoaren hasieratik, helduentzako euskara klaseak ematen dituzte. Ikasle gutxi dira, baina gogotsu ari dira lanean.

Amaia Portugal


Martutenen euskara ikasteko aukera aparta dago orain. Izan ere, Arantzazuko Ama ikastolak, guraso elkarteak eta auzo elkarteak euskaltegi txiki bat antolatu dute bertan. Zazpi lagunez, ikasle taldea osatu dute eta Hernaniko AEK arduratu da irakasleaz. Irakasleak azaldu digunez, "umeen aitzakiarekin, gurasoek ere euskara ikastea dugu helburu".

Astean sei orduz elkartzen dira gurasoak. Zero urratsean ari dira eta klaseak oso orokorrak dira: "Oinarrizkoa lan-

tzen dugu: aditz batzuk, gorputz atalak, gauzak nola esatu...", dio euskara irakasleak. Nahikoa hitz ezagunak direnez, ikasle batzuentzat ez dira oso zailak. Mitxel da haietako bat: "Nik lehendik banekien zerbait, eta erraz ikasten ari naiz. Ikusiko dugu aurrerago".

Badira, ordea, aurrez euskaraz ezertxo ere ez zekiten ikasleak, eta haientzat zailagoa da. Victor, adibidez, mexikarra da: "Ikaskide gehienak

bertakoak dira, eta gutxi gorabehera, harremana izan dute euskararekin. Nik ez, ordea". Gainera, euskararen erabilpena dela-eta arazoak ikusten ditu Victorrek: "Hemen, eguneroko bizitzan, euskara ez da beharrezkoa komunikatzeko. Horrek ere gauzak zailtzen ditu". Dena dela, klaseekin pozik dago, eta aurrera egin duela uste du, "ezer ez jakitetik pixka bat jakitera alde handia dago".



Ikasle batzuek ez zekiten ezer euskaraz

Hainbat arrazoi

Neska laguna Euskal Herrikoa delako ikasi nahi du Victorrek euskaraz. Bere ikaskide Pepari ere antzeko zerbait gertatzen zaio: "Hizkuntzak erakartzen ninduelako hasi nintzen euskara ikasten, baina baita nire haurrei ulertzeko ere". Pepa Cordobakoa da, eta duela hiru bat hilabete etorri zen Donostiara. Bere umeek azkar asko ikasi omen dute euskaraz. "Ammorraz nahi nautenean euskaraz egiten didate, eta ez diet ulertzen!", kontatu digu.

Esan bezala, zazpi dira Martuteneko euskaltegi txiki honetan izena emandako ikasleak, eta nork bere arrazoiak ditu euskara ikasteko. Hilabete besterik ez daramaten arren, klaseekin pozik omen daude denak. Irakasleak dioenez, ikasteko gogoia igartzen zaie. Hasteko, ez dago gaizki.

PARMA hotela

Itsaso aurrean.

Bainua, berogailua, telebista eta telefonoa gela guztietan

SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TEL.: 943 42 80 19



LAISTER®
SPORTCLINIC

Zure denda espezialista, marka onenekin zure zapaltzeko era kontuan hartuta, zapatarik egokiena gomendatuko dizugu.

Elkano 6 • Tel. eta faxa: 943 43 07 04

El Andorrano

1860tik zurekin

Alkandorak • Lentzeria

Garibai, 11 • DONOSTIA - Tel.: 943 420607



ALKANDORA
ARROPADENDA

Andia 1 Tel.: 943 42 03 49 DONOSTIA